

EZ NAIZ HILTZEAREN BELDUR

Irati Zuntzunegi Dominguez

Gernika-Lumo

Kaixo, Irati naiz, 25 urte ditut eta, duela hamar urte bizitako esperientzia bati esker, heriotza beste era batera ikusten dut, eta zuekin konpartitu nahi dut.

Abenduaren 22a zen, Covid-19 izeneko gaixotasun bat zela eta, gure planeta pandemia izugarri batek harrapatu zuen. Gure herriko jende asko kutsatuta zegoen eta horri ihes egiteko amaren aldeko aitona-amonen baserrira joan ginen Gabonak igarotzera, gurasoak, ahizpa eta laurok. Ahizpak hemezortzi urte zituen, eta oso haserre zegoen, heldua zen bere lehenengo Gabonetako oporrak zirelako, eta pandemiak izorratu zizkiola errepikatzen zuen ahal zuen guztietan. Gurasoak ere aspertuta zeuden gaixotasun berri honekin eta kokoteraino zeudela errepikatzen zuten behin eta berriz. Ez zidaten kasu handirik egiten, pentsatzen zuten nigan ez zuela eraginik, baina nik ez nuen horrela ikusten. Banekien nire ahizpari niri baino gehiago eragiten ziola, baina horrek ez zuen esan nahi besteok atsegin genuela egoera hori.

Garai hartan, ez zen inor bizi lehen aitona-amonak bizi izandako etxean. 2016ko urtarrilean aitona minbiziak jota hil zen, eta urte bereko amaieran amona, bihotzeko baten ondorioz. Baserria mendian zegoen, isolatuta. Inguruan ez zegoen beste etxerik, ez zen inor bizi, kilometro askoko lursailak inguruan, besterik ez. Izugarri handia zen baserria, zaharra eta hotza, eta, gainera, zikin-zikin zegoen, horregatik heldu bezain laster garbitzen hasi ginen.

Etxera sartu nintzenetik zerbait arraroa sentituen, ez geundela bakarrik, norbait gehiago zegoela, baina ez nuen inor ikusten. Etxekoei kontatutako nien sentitzen nuena, baina konturatu nintzen sentipen hura zuen bakarra neu nintzela, eta horregatik erabaki nuen gertatutakoari garrantzi handirik ez ematea.

Baserria txukuntzen eguna eman ondoren, iluntzean beheko sua piztu genuen hotz handia egiten zuen-eta. Gero, Gabonetako zuhaitza atera genuen egongelan jartzeko asmoz. Azkeneko aldiz zuhaitza jarri genuenetik denbora asko igaro zen, eta oroitzapen oso politak gogorarazi zizkidan. Aitona-amonekin pasatu nituen Gabon eta Urteberri guztien oroitzapenak. Izugarri botatzen nituen faltan, baina ez nintzen momentu hartara arte kontziente izan. Egun hartan, goiz oheratu ginen, egun guztia garbitzen eman ostean, leher eginda geunden-eta.

Hurrengo egunean, gosalduta eta egongelara joan nintzen, eta liburutegiko liburu zahar eta hautsez

beteriko bat hartu nuen. Garbitu ostean, kanpora irten eta irakurtzeko txoko bat aurkitzeari ekin nion. Ez zegoen hotz handirik mendi puntan egoteko, orduan aitonaren beroki bat hartu, eta hosto gabeko zuhaitz zahar baten azpian eseri nintzen. Liburua ireki eta irakurtzen hasi nintzenerako, etxera sartu nintzenean sentitutako sentsazio berak zeharkatu ninduen. Norbait nire aldamenengan egongo balitz bezala, eskuetan nuen liburua irakurtzen. Bat-batean zuhaitz gainean zegoen hontzak ihes egin zuen, zerbaitek ikaratu balu bezala, eta aldamenera begiratu nuenean, hotzikara sentitu nuen. Ez nuen ezer ikusi oraingoan ere, baina banekien norbait zegoela. Aitona zen, seguru nengoen. Alde batetik, arraro sentitzen nintzen bere alboan hainbeste denbora eta gero, baina bestalde, gustura, denbora asko baineraman ikusi gabe, eta bere falta sumatzen bainuen. Ez nuen handik mugitzeko gogorik, ahal nuen denbora gehiena eman nahi nuen aitonaren aldamenengan. Sentsazio polita zen, baina era berean beldurra sentitzen nuen, galdutako senide bat itzuli baitzen nire bizitzara, momentu baterako baino ez bazen ere.

Berarekin ezin hitz egin arren, han zegoela sentitzen nuen, zerbait magikoa. Dena den, banekien momentu hura ez zela betiko, eta lehenago edo geroago agur esan beharko niola.

Aitonaren alboan isil-isilik, eta haren liburu zaharra irakurtzen eman nuen goiza. Eta azkenean heldu zen agur esateko unea, bazkaltzeko ordua zen eta joan egin behar nuen. Maite nuela esan nion eta

amona ikusten bazuen, hari ere ikaragarri maite nuela esateko eskatu nion, eta alde egin nuen.

Mahaia prestatzea tokatzen zitzaidan egun hartan, eta etxeakoak egongelan, telebista ikusten zeuden bitartean, lanari ekin nion. Sukaldean berriro sentitu nuen lehengo hotzikara bera, eta mahaira begiratu nuenean han zegoen amona, nire zain zegoela zirudien. Orduan ez nuen ezer arraroa sentitu, behintzat nire gorputzak ez zuen ezer berezia sentitu, hori bai poz ikaragarria sentitu nuen amona ikustean. Beren aldameneko aulkian eseri, eta hizketan hasi ginen. Berak ez zuen hitz egiten, baina ulertu egiten nion, esan nahi zuena jakingo banu bezala. Hogei minutu igaro ostean, gurasoak kexatzen hasi ziren, orduan mahaia azkar-azkar jartzen jarraitu nuen. Amonari esan nion bazkaldu ostean elkartuko ginela bere lehengo logelan. Bazkalorduan ez nuen hitzik esan eta platerean zegoena bukatu bezain laster amonaren logelara joan nintzen, eta hantxe aurkitu nuen, bere gauza zaharrei begira. Ikusi ninduenean ohean eseri zen, eta hizketan jarraitu genuen. Kezkatuta zegoen, gaixotasuna zela eta ea ondo geunden galdetu zidan behin baino gehiagotan. Arratsalde osoa elkarrekin igaro ondoren, guztiz penaturik, agur esan nion.

Ohera joan nintzen. Goiz zen, baina neure pentsamenduetan murgildu nahi nuen, eta horretarako ez zegoen ohea baino leku aproposagorik. Orduan, etxekoei esan eta oheko izara zuri eta garbien artean sartu nintzen.

Sekula ez dut ahaztuko egun hartan gertatu zitzaidana. Agerpen hari esker heriotza beste era batera ikusten dut orain, eta ez dit beldurrik ematen. Txikitatik, hiltzearen beldur izaten gara, familiakoak berriro ez ikustearen beldur. Baina nik orain hil eta geroko bizitzan sinisten dut. Gure gorputza hiltzen dela, baina arimaz inguratuta bizi garela pentsatzen dut. Eta horrek lagundu egiten dit, egunen batean, ordua iristean, badakidalako neure lagun eta senideen ondoan izango naizela, eta nagoen lekutik ikusi ahal izango ditudala, zaindu ahal izango ditudala.

Ez izan heriotzaren beldur, lehenago ala geroago lagun eta senideen arimak elkartuko baitira.